

Eriak gaixoaldiaz informazioa eduki behar duela azpimarratu dute bioetikako adituek

Gaixoaren eta sendagilearen arteko harremanaz ariko dira Iruñeko jardunaldietan

Alberto Barandiaran / Iruñea

Bere gaixoaldiaz informazioa duen eriak hobeto eraman dezake tratamendua, bizi-kalitate hobea eta humanoagoa izango du, eta erabakiak bere ka-

buz hartzeko gai izango da. Hori da Nafarroako Bioetika Lantaldeak aldarrikatu nahi duen ideia funtsezkoena, gai horri buruz antolatu duen ikastaroaren hasieran; hau da, gaixoaldia ez dela soilik medikuen ardura, erabakiak gai-

xoarekin batera hartu behar direla, eta gero eta garrantzitsuagoa dela informazioa eskaintzea. Beraz, ekaina bitarte, abortuarekin, eutanasiarekin eta arazo etikoekin zerikusia duten gaiak jorratuko dituzte 30 adituk.

GIZARTEAN izan den demokratizazioa osasun arlora ere eramatea, osasun arloa humanizatea. Horiexek lirarteke aste honetan Nafarroako Ospitalean hasi diren Bioetikari buruzko jardunaldien oinarri teorikoak, eta horien gainean jardungo dute ekainera bitarte Nafarroako 30 bat adituk, bilatzeko modua gero eta maizago planteatzen diren arazo etiko eta moralak konpontzeko. Finean, eriek eta haien familiek gero eta maizago erreibindikatzen dituzten eskubideen aurrean nola jokatu erabakitzeke.

Medikuntzak, ehunka urteetan, aldarrikatu du beti gaixoei informazioa ez ematea, komenigarriagoa zelakoa bere egoerarentzat, baina hori aldatu beharra dagoela azpimarratu zuen atzo Koldo Martinez ikastaroko ardura-dunak. «Nahi dugu eriek diagnosiarekin lotutako susmo guztiei buruz, tratamenduei buruz, pronostikoei buruz informatuta egotea, horrela bere egoeraren jakitun izan dadin eta bere erabakiak hart ditzan».

«Inork ezin du medikuen esku utzi bere bizitza»

Hau da, Martinezen ustetan, medikuntzak daukan arazo etiko garrantzitsuena, eutanasia edo abortua bainoago. «Inork ezin du bere bizitza osasun-arduradun baten esku utzi» esan zuen.

Aste honetan hasi den ikastaro honetan, horrela, etika, moralak, erlijioa edo bioetika bezalako gaiak jorratuko dira, eta urtarrelean kontzientzia eragotzen medikuen artean, kode deontologikoak, sekretu profesionala-eta.

Azken moduloa, martxotik ekainera bitarte egingo denak, bizitzaren hasierako arazo etikoak tratatuko ditu: sexualitatea, abortua-, bizitzaren bukaerakoak -eutanasia, organoen transplantea- eta injeniaritza genetikoak, osasun mentala eta arazo etikoak eta gisakoak.

Koldo Martinez • NAFARROAKO OSPITALEKO MEDIKUA •



JOXE LACALLE

«Medikuek ezin dugu ezer egin gaixoaren erabakiaren kontra»

KOLDO MARTINEZ medikua Nafarroako Ospitaleko Bioetika taldeko kidea da, eta gaixoen aurrean jokabide berria bultzatu nahi duen korrante honen inguruan espezialistek daukazen aurreiritziak onartzeaz gain, gaixoei eta haien familiei iritzia kontuan hartu beharra azpimarratzen du. Martinezen ustetan, azken finean, gizakiok eskubidea dugulako gure bizitzaz erabakitzeke.

■ Bioetikaren bidetik iraultza txiki bat eragin nahi da medikuntzaren barruan. Eztabaidak gogorrek dira?

Duela 50 urtera arte medikua zen jakin zekiena, zekien bakarria alegia, eta eriarri zer komeni zitzaion esaten zion. Hori guztia aldatu da, ez medikuen beraien hausnarketaren

ondorioz, baina gizarteari esker, eta medikuentzat hori kanpotik datorren zerbait da, beraz eta asko eta asko kontrakoak dira, jakina.

■ Bioetikaren bidez arauak eman nahi dituzue edo medikuaren esku utzi azken erabakia?

Bioetika da moralari buruz erreflexioa. Hau da, bakoitzak uste badugu gurea dela onena, ez dago topalekurik. Horregatik gaixotasunaren aurrean denek dute zeresanik, denek dute eman beharreko iritzia.

■ Gaixoak, beraz, erabaki lezake bere gaixoaldiaz?

Edozer erabakiaren jakitun izan behar du gerrigorrez. Guk, medikook, ezin dugu bere borondatearen kontra ezer egin.

■ Horrek zuzen-zuzen erasotzen dio medikuak

biziak salbatzeko daudela dioen ustez ukitu gabeko oinarriari.

Hala da. Guk uste dugu hausnarketa sakona egin behar dela honi buruz.

■ Planteatzen ari zarete, azken finean, eutanasia, abortoa eta antzeko beste arazoen aurrean gaixoari ere jaramon egitea. Baina hori zaila izango da Nafarroan hain zuzen, kontuan hartuta hemen, bai autanasia bai abortoa debekatuta daudela.

Guk arazo bakoitzaren alde guztiei buruz dialogatu nahi dugu, gure ikuspuntua azaldu eta bioetikatik hori nola konpondu daiteke aztertu. Iritziak moralak izango dira, hausnarketa arrazionalak. Gero, jakina, hemen debekatuta daude soluzio horiek, eta arazoa hor dago.

Haurren laguntza soziala garatu nahi du Paueko Kontseilu Nagusiak

■ *Kontseilu Nagusiaren eta Estatuaren arteko eskema jakinaraziko dute*

Eneko Bidegain / Baiona

HAURREN laguntza soziala hobeki ezagutarazi nahi du Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak, Henri Domergue batzorde sozial-leko lehendakariak atzo azaldu zuenez. «Haurren Laguntza Soziala DDASeko haurren irudi mugatu eta txarrarekin nahasten da», adierazi zuen.

«Departamenduko elkartasunaren zuzendaritzak (DSD) haurrei eta haien familiei laguntzaren ekartzea dauka helburu, Kontseilu Nagusiaren gain utzi haurrenganako ekintza sozialen baitan», azaldu zuen Domerguek.

Ekintza horiek diru, material eta hezkuntza sailetan oinarritzen dira. DSDk bere gain hartzen dituen haurren % 95en gurasoek atxikitzen dute haurren ardura, Kontseilu Nagusiaren zenbakien arabera. Gainerateko haurrek ez dute familiarik.

Duela bi urteko eskema

Kontseilu Nagusiak eta Gazteriaren Gerizape Judizialak eskema bat ezarri zuten xutik duela bi urte, zailtasunak dituzten haur eta gazteen laguntza politika baten koordinatzeko xedearekin. Estatua eta Kontseilu Nagusiaren arteko elkarlana sendotu nahi dute eskema horren bidez. Eskema horrek hautetsiak, justizia zerbitzuko, estatuko, eskoletako eta etxe berezietako ordezkariak biltzen ditu. Arazoak dituzten haur eta gazteak berriz eskola mundura edo formakuntza profesionalera ekartzen ditu eskemak.

Haurren laguntza etxeak departamenduko 1.060 haurretaz arduratzen dira. Horietatik 500 bat Ipar Euskal Herrian aurkitzen dira. Epaileak du ematen, kasu gehienetan, haurrak etxe berezietan segiarazteko agindua, «gurasoek haur haien heziketaren segurtatzeko gaitasunik ez dutelarik», Domergueren arabera.